# DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 250. zenbakia. 2016ko azaroa




IRAZABAL
clínica dental
Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu
Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitteren: @ClinicaIrazabal
FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. GALDETU
IRAZABAL
clínica dental
Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com
Ainhoa Zulueta
Doktorea
Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Aníbal Alonso Doktorea.
Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00etara


ERNE
"SD EIBAR" BIRUSA HEDATZEN ARI DA...
EIBARRERA ABONATU
Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu
Informatu zaitez: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831
SDEIBAR
#kutsatuzureafizioa

***ARGITARATZAILEA:***

**Euskal Birusa**
**Elkarte Kulturala.**

***HELBIDEA:***

**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta-kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.eus**

***ERREDAKZIO TALDEA:***

**Alazne Aiestaran,**
**Amaia Arginzoniz,**
**Paul Bustindui,**
**Estibalitz González**
**eta Dorleta Vidal.**

***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***

**Dorleta Vidal.**

***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***

**Alazne Aiestaran.**

***AZALEKO ARGAZKIA:***

**Noelia Dosantos,**
**Estibalitz González**
**eta Dorleta Vidal.**

***LAGUNTZAILEAK:***

**Juanmi Bravo,**
**Antonio Hernández 'Cuco',**
**Patxi López,**
**Valentin Mugarza eta**
**San Lorenzo Eskola.**

***ARGAZKIAK:***

**Amaia Arginzoniz,**
**Paul Bustindui,**
**Sandra Calvo,**
**Xabier Ciarsolo,**
**Estibalitz González,**
**Valentin Mugarza,**
**Julen Rodríguez,**
**San Lorenzo Eskola**
**eta Dorleta Vidal.**

***PUBLIZITATEA:***

**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**

***INPRIMATEGIA:***

**Gertu Koop. (Oñati).**

***BANAKETA:***

**Ainitze Antxia, Nora Mateos**
**eta Olatz Vidal.**

***TIRADA:***

**2.425 ale.**

***ISSN:***

**1133-973X.**

***LEGE GORDAILUA:***

**SS-213/1994.**

***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Guazen guztiok (Entzuteko: www.alboka.es)

Guazen guztiok,
guazen guztiok
Ziarreko bueltan behera,
kanta-kantari sartuko gera
Ermuko Ziudadera,
kanta-kantari sartuko gera
Ermuko Ziudadera.

Atso guztiak urtengo dabe
bentanetatik kanpora,
esango dabe: "Hamen datozak
Ermuko gazte zoruak! ".

Kanta-kantari sartuko gera
Ziarreko bueltan behera,
kanta-kantari sartuko gera
Ermuko Ziudadera.

Segi segi zeure bizimoduari,
ez egin kasurik atsuen esaneri!



# Hilabete honetan…

GURETIK MUNDURA ......4
Atzerritarrak behar ditugu!

ERREPORTAJEA ............5-7
Hiru Haundiak lasterketako neskak

MALLABIAN ZER? ........8-9
*Baserriko lanabesak, tresnak eta...*

MOTZEAN ..................10
Igelak filma aurkeztuko da Ermuan

XXVII. SAN MARTIN..11-15
Argazkiak, sarituak eta berriak

SAN MARTIN .........16-17
Garittik urunera / Gari-jotie

ESKOLEN TXOKOA ......18
San Lorenzo Eskolako berriak

ZORION-AGURRAK ......19
Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK............20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA .........21
Badakizu noiz den Euskararen Eguna?

AGENDA ...................22
Abenduko agenda

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

2016ko urtarrilean ekin genion Guretik Mundura atalari. Ordutik, hainbat ermuar eta mallabitarren berri jaso dugu orri honetan, baina... Gero eta gehiago kostatzen zaigu atzerrian bizi diren lagunak topatzea.

Beraz, **Euskal Herritik kanpo bizi bazara edo bizi den baten bat ezagutzen baduzu, bidaliguzu bere kontaktua drogeten@gmail.com helbidera.** Eskerrik asko!







































Ezkerretik hasita: Eva Garcia, Olga Bayon, Vero Novoa eta Ana Aguire. *Argazkia: Julen Rodríguez.*

# Hiru handiak: zenbat buru hainbat helburu

**Bi urtean behin Manuel Iradier Txangolari Elkarteak antolatzen duen Hiru Haundiak (Gorbeia-Anboto-Aizkorri) mendi lasterketan Ermuko hainbat lagunek parte hartu ohi dute. Urriaren 15ean ospatu zen 20. edizioan 17 ermuar izan ziren. Orotara, 1.700 lagunek parte hartu zuten 5.200 metroko igoera eta beste horrenbesteko jaitsiera duen frogan. 100 kilometro dituen ibilbide osoa egiteko, gehienez, 24 ordu ditu parte-hartzaile bakoitzak. Aurtengoan 150 emakumek hartu zuten parte, tartean, Ermuko Eva Garciak, Vero Novoak, Ana Aguirrek, Maite Masek eta Olga Bayonek.**

Norberak modu ezberdinean bizi du esperientzia. Ez da gauza bera lehenengo aldiz Hiru Handiak egitea edo eskarmentua izatea froga gogor eta zorrotz horretan. Izan ere, Eva Garciarentzat aurtengoa 5. aldia izan da. Vero Novoa, Ana Aguirre, Maite Mas eta Olga Bayonentzat lehenengo aldia, eta horrek berezi bihurtu du esperientzia. Kontuak kontu, bakoitzak buruan helburu bat zuen. Eva Garciak denbora hobetzea zuen helburu, baina ezin izan zuela lortu dio. “Duela bi urte ez nuen dortsalik lortu, beraz 2012an egindako denbora hobetzea nahi nuen. Orduan 16 ordu eta 29 minutu egin nituen eta aurten 16 ordu baino gutxiagotan egin nahi nuen, baina ezin izan dut”. Hala ere, Garcia pozik dago egindako lanarekin, parte hartu zuten emakumeen artean 8. sailkatzea lortu baitzuen. “Kontuan hartu behar da, aurten Mendi Federazioan dauden profesionalak diren emakumeak izan direla”, azpimarratu du.

Olga Bayon, Ana Aguirre, Vero Novoa eta Maite Masen helburua, aldiz, Hiru Handiak froga bukatzea zen. Bayonek dio lagun batek komentatu ziola parte hartu nahi zuela eta erronka polita iruditu zitzaiola emakume gehiagorekin konpartitzeko. “Parte-hartzaile gehienak gizonak direla kontuan hartuta —azpimarratzen du—, mendian ibiltzen diren eta eskalatzen duten emakumeei komentatu nien. Horrela, emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta era berean, froga gure artean prestatzeko”. Esperientzia izugarria izan dela dio, nahiz eta ezin izan zuen bukatu, aurreko astean gaixo egon zelako. “Hasieratik gorputza behartu nuela uste dut, oinetan babak atera zitzaizkidan eta Urbian erabaki nuen uztea, 88. kilometroan”.

Ana Agirrek bukatzea zuen xede, eta bukatzekotan, ahalik eta denbora gutxienean egitea. “20 ordu baino gutxiago egin nahi nituen, baina ez neukan buruan denbora zehatza eta 18 ordutan bukatu nuen, beraz, oso pozik geratu nintzen”, azpimarratu du.

Vero Novorentzat oso garrantzitsua zen modu duinean bukatzea. Ez zuen nahi “leher eginda” bukatu eta lortu zuen, bere hitzetan, “irribarre handi” batekin zeharkatu zuelako helmuga. “Ez neukan buruan denbora zehatzik egitea —dio—, 24 ordu baino gutxiago baina mugara ondo heltzea”.

**Prestaketa**

Helburuak helburu, azkenean horiek lortu edo ez lortu, urte osoa eman dute bostek froga prestatzen. Fisikoki sasoian egoteko, korrika egin, gimnasioan prestatu eta astebururo mendian kilometroak eta ibilbideak egin


Eva Garcia Araian. *Argazkia: Sandra Calvo.*

dituztela argitzen dute. Hala ere, gehienez 50 kilometroko ibilbideak egin dituztela diote eta horregatik onartzen dute oso zaila zela kalkulatzea 100 kilometro egiteko gai izango ziren ala ez. “Niretzat galdera gakoa zen hori. Zenbat kilometro egin behar ditut entrenatzen Hiru Handiak froga egin ahal izateko? Horixe galdetzen nien ingurukoei”, dio Bayonek. “Frogan zer, noiz eta nola jan eta edan behar duzun ere prestatu dugu”, gaineratu du Aguirrek. Nahiz eta antolaketakoek Otxandion eta Landan janaria jartzen duten, bakoitzak bere gorputzari neurria hartu behar diola uste dute. “Prestaketarako egindako martxetan konturatu nintzen ordu betero zerbait jan eta edan behar nuela asko jota. Froga egunean Landan tortilla pintxoa jan nuen eta ez zidan ondo egin”, erantsi du Novoak.

Fisikoki prestatzeaz gain eta gorputza sasoian izateaz gain, mentalki gogor eta ondo egotea ezinbestekoa dela aitortzen dute guztiek. Aguirrek esaten du indarra eta erresistentzia ondo kudeatu behar direla eta, buruak paper garrantzitsua jokatzen duela. “Izan ere, bukatzeko 20 kilometro falta zirela ikusi nuenean, zenbat egin nituen ordura arte pentsatu beharrean, falta ziren 20 horiek askotan egin nituela neukan buruan. Neurri handi batean buruak agintzen du. Ez baduzu sinesten, ezin izango duzu egin”, azpimarratu du. Novoa ere iritzi berekoa da: “Fisikoki ondo egon behar duzu baina psikologikoki are gogorrago”.

Horretan lagunek paper garrantzitsua jokatzen dutela diote. Olgaren esanetan, ezagun eta lagunak han egoteak ziurtasuna ematen diote norberari eta, bere ustez, frogaren puntu ezberdinetan haiekin geratzea psikologikoki oso lagungarria da. Novoak kontatzen du Olga eta biek elkarrekin egin zutela ibilbidearen zati handiena eta Olgak uztea erabaki zuenean, tarte batean bakarrik aritu zela. “Bakarrik egin nuen tartean gaizki pasa

## Helburuak lortu edo ez, urte guztia eman dute prestatzen




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

## “Gorputzari neurria hartu eta muga non dagoen jakin behar da”

nuen, gainera oso energia negatiboa zuen talde batekin elkartu nintzen. Gero, bikotea eta biok egin genuen bidea elkarrekin. Niretzat norbaitekin egitea oso inportantea da eta zalantzarik gabe laguntzen dizun edo dizutenek pentsamendu positiboa izatea”, dio Novoak.

**Froga eguna**

Prestaketa fisikoa eta psikikoa oso garrantzitsua bada ere, horrek ez du bermatzen froga egunean ezustekorik izango ez denik. Garciak onartzen du 5. aldia izan arren, egunean edozein ezbehar gerta daitekeela. “Urdaileko mina, lesio bat, lorik ez egitea ere oso gogorra da”, azpimarratzen du. Garciak duela 4 urteko denbora antzerakoa bukatu zuen ibilbidea eta haren ustez, azkeneko aldapan zegoen lokatzak minutu batzuk galtzea eragin zion. Ez zuen aparteko arazorik izan froga egunean eta ibilbidearen zatirik handiena korrika egin zuen. Oso lagungarria egin zitzaion psikologikoki 50. kilometrotik aurrera, kilometroak gehitu beharrean, kentzen joatea.

Bayonek oso argi dauka egunaz disfrutatzeaz gain, prestaketa prozesu osoaz gozatu behar dela. Izan ere, zalantzak izan zituen parte hartzeko orduan, aurreko egunetan makal ibili zelako, baina azkenean, probatzea erabaki zuen eta bukatu ez bazuen ere, oso pozik geratu zen. “Dibertigarria iruditu zitzaidan, horrenbeste jende parte hartzen, jende mordoa gu animatzen, nerbioak, gauez mendia argiztatuta, argi-suge handi bat zirudien Gorbeiarako igoerak. Anbotok Gabonetako zuhaitzaren antza zeukan. Izugarriak dira gaueko irudiak! Hori konpartitzea oso berezia iruditu zitzaidan”, dio harro. Halaber, aitortzen du gogorra izan zela bertan behera uzteko erabakia hartzea, baina oso garrantzitsua dela gorputzari neurria hartu eta non dagoen muga jakitea. Zentzu horretan, jende askok egiten duen gel eta barra energetikoen gehiegizko erabilera kezkagarria iruditzen zaio. Bere ustez, horiek neurrian erabiltzeak norberaren gorputza ondo ezagutzen laguntzen duelako eta bere esanetan, askok gel eta barra horietan ikusten dutelako miraria eta maiz, horien larregizko erabilerak bestelako ondorioak dakartza, botaka egitea, besteak beste.

Ana Aguirrek argi adierazten du 50. kilometrotik aurrera ez zekiela zer gertatuko zen, zenbat kilometro gehiago egin ahal izango zituen, baina froga egunean konturatu zen urte osoko entrenamendu saioak ez zirela alferrikakoak izan. “Ibilbidearen zati handiena beste neska batekin egin nuen, erritmo antzerakoa generamalako, eta 80. kilometrora heldu ginenean, argi ikusten genuen azken 20 kilometroak egin ahal izango genituela, oso jarrera positiboa geneukan”, azpimarratzen du. Haien ondoan zetorren mutil batek, aldiz, guztiz jarrera negatiboa zuela kontatzen du Aguirrek eta haren ondotik alde egin zutela. “Maite Masek Urkiolan utzi behar izan zuen belaunak izorratuta zituelako. Halakoak gertatzea ezinezkoa da aurreikustea. Eta froga egunera ondo heltzea, inolako ezbeharrik gabe, itzela da. Zorionez, nik ez nuen ezustekorik izan ibilbidean”, gaineratu du.

Vero Novoak froga bukatu zuenean, ezin zuen sinetsi hain ondo atera izana. Froga egunean ez zuela ustekabekorik izan kontatzen du, baina froga baino hilabete lehenago bi bihurdura egin zituela gogoan du. “Une batez pentsatu nuen ezin izango nuela proba egin, baina fisio, osteopata eta bestelakoekin lortu nuen ibilbidea hasi eta bukatzea, eta gainera, orkatiletan minik gabe. Zalantzarik gabe, nire eguna izan zen”, dio irribarrez. Hala ere, une gogorrak ez ditu ahaztu. Ibilbidea gauez hasi zuen eta bukatu baino lehen berriz ilundu egin zuela gogoratzen du eta aitortzen du oso gogorra egin zitzaiola Aizkorriko jaitsiera. “Nekatuta nindoan, lentilla bat galdu nuen, eskerrak bikotea nirekin zihoan bidea apur bat markatzen! Hori bai, bukaera sekulakoa izan zen, nik ez nuen horrenbeste jende espero ordu hartan, baina ikaragarria eta emozioz betetako izan zen”.

Erronka gisa hartu zuten Hiru Handiak frogan partehartzea. Bakoitzak bere erara esperientzia bizi eta konpartitu ostean, etorkizunerako ateak irekita utzi dituzte.

David Elejalde eta
Alazne Aiestaran











**Pello Mugarza eta Jesus Mari Uribelarrea:**

# “Antzina, tresna jakin bat zegoen edozein lan egiteko”

**Lanbide bat desagertzen denean lanbide hori burutzeko erreminta eta tresnak ere desagertzen dira. Eta erreminta horiekin batera haren izena. Kasurik onenean, apaingarri modura gorde dira baserrietako hormetan. Mallabiko baserri tresnen bilduma egin dute Justo Azagirrek, Pello Mugarzak eta Jesus Mari Uribelarreak. 300 tresnatik gora batu dituzte *Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuek* liburuan, herriko baserriz baserri ibili ondoren tresna zaharren bila. Urte eta erdiko lanaren ondoren, liburuaren nondik norakoak eta bestelako berezitasunak kontatzen dituzte Pellok eta Jesus Marik.**




***- Zein izan da helburua?***

Gure ondorengo belaunaldiek tresna hauen berri jakitea da. 60 urte bueltan dauzkagunok gehienak erabili ditugu. Baina jende gazteari tresna hauek Erdi Arokoak irudituko zaizkio. Beraz helburua da, horiek ere jakitea antzina edozein lan egiteko tresna jakin bat zegoela.

***- Zelan egiten da tresna bakoitzaren fitxaren prozesua?***

Hasieran Trabaku Beheko Enriquerengana joan ginen. Tresna ugari zituen eta banan-banan joan zitzaigun azaltzen bakoitzaren egitekoa. Berak emandako azalpenei guk beste definizio orokor bat gehitu diogu. Beraz, tresnaren definizioa, jabearen erabilera eta argazki batekin bete ditugu 300 fitxatik gora. *Eibarko euskaratik*, Juan Garmendiaren liburutik, *Bergarako euskaratik* eta beste hainbatetatik atera ditugu definizioak. Baserritarrekin ere, definizio ezberdinak izan ditugu.

***- Alfabetikoki eta gremioen arabera sailkatu dituzue guztiak.***

Bai, neurriak, altzariak, ehungintzakoak, esku beharrekoak… Sailkapen batean jarri ditugu guztiak, hori bai, Mallabiko tresnak dira denak, herrira mugatu dugu bilduma.

***- Tresna askoren analisia egin duzue, baina gehienak ezagunak egingo zitzaizkizuen baserri giroan bizi izan ondoren, ezta?***

Gehienak ezagunak dira guretzat. Azken 50 urteetan aurreko 400etan baino gehiago aldatu da mundua, eta tresnekin ere berdina gertatu da. Guk betidanik baserrian erabili izan ditugun tresna batzuk ezezagunak egingo zaizkie hurrengo belaunaldiei. Digitalizazio eta prozesu mekanikoek asko baldintzatu dute eskulana eta hori igarri egiten da gaur egun. Dena den, harritu gaituzten tresnak aurkitu izan ditugu. Esaterako, Zengoitabitarten haria batzeko tresna batek harritu gintuen.

***- Egongo zen ezagutuko ez zenuten tresnarik?***

Etxean egiteko abarka *plantilla* batekin hartu genuen ezustekoa. 42 zenbakirako egina zegoen xafla, beraz zenbaki horri zuenari baino ez zitzaion balio.

***- Gaur egunean ere erabiltzen dira antzinako tresna horiek?***

Ez bada aitzurra, aizkora edo malluka, besteak denboran zehar galdu izan dira funtzio bera egiten zuten tresnak agertu izan diren heinean.

***- Badauka baserriko jendeak antzinako tresna horiek gordetzeko ohiturarik?***

Badira traste zaharren bila etorri diren txatar-biltzaileei saldu dizkietenak. Baina beste kasu askotan ere gorde egiten dira oroigarri modura.

***- Nabarituko zenuten tresna hauek gaurkoekin alde-***

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Dejate QUERER BERRIA ERMUA

oh la lá!
EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

***ratuz iraunkorragoak zirela.***

Gauza gehienak ondo kontserbatuak aurkitu ditugu nahiz eta kanpoan eta euritan eman dituzten urte ugari. Lehengo tresnak irauteko eginak zeuden eta gaurkoak tamalez ez. Gaur egun Ikeako tresna bat ekartzen baduzu ez dizu urte bat baino gehiago iraungo.

***- Egungo krisi ekonomikoarekin kultur arloan murrizketa ugari egin dira. Ez da gauza erraza gaur egun liburu bat aurrera ateratzea. Nola ekin zenioten proiektu honi?***






Hasiera batean, herriko Udalera joan ginen ideia proposatzera, eta ezezkoa eman ziguten arlo administratibotik. Horren ostean, Gerediaga Elkartera joan ginen. Horiek, gure poztasunerako proiektu oso interesgarria zela eta aurrera atera behar zela esan ziguten. Beraiek arduratuko zirela proiektuaren finantziazioa lortzeaz, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Mallabiko Udalarekin eta bestelako kultur elkarteekin kontaktuan jarrita. Guri oso ideia ona iruditu zitzaigun eta proiektuari ekin genion. Mallabiko Udalarekin harremanetan egon ostean, gurekin jarri ziren kontaktuan proiektuaren kostuen kargu egiteko.

***- Herriko kultur ekimen bat izanik, behar baino traba gehiago aurkitu dituzue.***

Gaur egun edozein diru publikoren finantziazioan egiten diren gastu guztiak justifikatuak egon behar dira, eta kasu batzuetan oso zaila da aurretiaz gastu horiek zehaztu eta kalkulatzea. Guk etxean sartu ditugun orduak ezin ditugu justifikatu, nahiz eta faktura bat egin behar dugun. Gainera gure liburuak ez du etekin ekonomikorik bilatzen, gure helburua antzinako tresna horien ondarea gordetzea baino ez da. Borondate falta baino, erakunde ofizialetan justifikatzeko zailak diren gastu batzuen faktura eskatzeak huts egiten duela, bereziki irabazi asmorik gabeko egitasmoetan.

# “Gaur egungo tresnek ez dute urtebete baino gehiago irauten”

***- Udalaren baiezkoaren ondoren, errazagoa egin zitzaizuen guztia?***

Bai, azkenean adostu genuen Gerediaga Elkartekoak arduratuko zirela liburuaren inprentaz eta distribuzioaz eta Mallabiko Udalak hartu zuen bere gain gastu ekonomikoa. Biek oso proiektu interesgarria zela islatu ziguten eta oso pozik ibili izan gara elkarlanean.

***- Zenbat denbora eman duzue Mallabiko baserrietan barrena antzinako tresnen inbentarioa egiten?***

Proiektua 2015eko udaberrian hasi zuen Pellok Justorekin batera, eta gero udan Justo zendu zenean ni hasi nintzaion laguntzen. Baserriz baserri aritu izan gara tresna ezberdinen bila, banan- banan betetzeko gerora fitxak.

***- Liburuak xarma berezia dauka zuentzat, egiten zeundetela zendu baitzen Justo.***

Berarekin zor bat daukagu eta ilusio handia egingo zion liburua da. Beti egon zen prest laguntzeko eta ekimen honekin ilusio handia zeukan. Liburu hau berari zor diogu eta beretzat dago egina.

***- Non aurkitu dezake jendeak zuen liburua?***

Asmoa da Mallabiko Udalak herriko baserri guztietara opari modura bidaltzea. Baina honetaz aparte, Udalean eta Durangoko Azokan ere aurki dezake nahi duenak.

Paul Bustindui

Modas Cande
Candelaria Rueda
Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan espezialistak
Mayte
Denda berria
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

MUGA Kirolak
San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

### EUSKARAREN EGUNERAKO EGITARAU ZABALA PRESTATU DA. IKUSI 23. ORRIA!

### ESTIBALIZ PRIETO INFLUENCERRAK HITZALDIA ESKAINIKO DU IZARRAN

Azaroaren 25ean, ostirala, “Izarra Centreko Arratsaldeak” jardunaldietako saio berria egingo da. Estibaliz Prieto *influencer* eta *instagramer*ra ezagutzeko aukera egongo da saio horretan. Bere motibazioaz, ibilbideaz eta zailtasunez arituko da hizlaria eta proiektu berriei buruz ere hitz egingo du. Parte hartu nahi dutenek mezua idatzi beharko dute administracion@fundacionizarra.eus helbidera.

### BERBARUNNING TALDEA ABIATUKO DA URTARRILEAN

2017an Berbalagunek erronka berriari helduko dio: interesen araberako taldeak sortzeari, alegia. Horietako lehena Berbarunning izango da, *running*a praktikatu eta euskaraz aritu nahi dutenei zuzenduta. Hilaren 19an izango da lehen saioa (parte hartzeko, ermua_berba@aek.eus edo 663070492). Era berean, Dantzanitzen bigarren eta azken saioa egingo da abenduaren 16an.

## Igelak filma aurkeztuko da Ermuan

Azaroaren 24an, osteguna, Igelak filma estreinatuko da Ermuan. Patxo Telleriak idatzi eta zuzendutako pelikula honetan parte hartzen duten aktoreetako batzuk ere Ermuan izango dira, eta hori ospatzeko egitarau zabala prestatu da. 18:30ean, Pintxo&Pote tematikoa egingo da herriko hainbat tabernatan; 19:00etan, Zo Zongo! taldeak kalejira egingo du Zubiaurren; eta 22:00etan afari solidarioa egingo da Mendiola jatetxean.

## Laburbira eta Kameratoian parte hartzeko epea zabaldu da

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen XIV. Laburbira zirkuituan parte hartu nahi duten egileek euren lanak aurkeztu beharko dituzte abenduaren 16a baino lehen (leire@topagunea.eus helbidean). Euskarazko lanak izan beharko dute, 2014tik hona ekoiztutakoak. Halaber, “XII Kameratoia: Piztu piztia”, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya alegia, antolatu du aurten ere Topaguneak. Abenduaren 3tik 6ra bitartean burutuko da eta azaroaren 24ra arte egongo da zabalik izen-emate epea (www.kameratoia.eus).

## Danobatgroup-ek lehiaketa antolatu du Euskararen Egunari begira

Euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendu eta sentsibilizazio berezia erakutsi ditu sorreratik DanobatGroup taldeak. “Atxikimendu hori langileei zein gizarteari begirakoa da eta horrekin lotuta DanobatGroup osatzen duten kooperatiba guztietan euskara planak ditugu martxan langileen artean euskararen erabilera areagotzeko, langileen motibazioan eragiteko eta ezagutza handitzeko”, diote arduradunek. Horretaz gain, kooperatiba gisa duen gizarte ardurari erantzuteko asmoz, euskararekiko konpromisoa adierazi izan du hasieratik. Gaur egun ere, hala jarraitzen du herri mailan egindako hainbat ekimenetan, eta baita kooperatibak kokatuta dauden herrietako eskolekin elkarlanean zenbait ekimen bideratuz: haur eta gaztetxoei lantegian egiten den lanaren berri emateko eta euskararen garrantzia azpimarratzeko, besteak beste. Aurten, pauso bat haratago emanez, enpresak lantegiak dituen tokietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke, webgunea bisitatzera gonbidatuz, eta euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez, eta horretarako lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi izanez gero, sartu lehiaketako estekan, kontsultatu webgunea, sartu hiztegi teknikoan, klikatu “Tailerreko Eskuliburu Teknikoan” eta osatu ariketa. *Smart watch* bat irabazteko aukera dago!

udal euskaltegiak
Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

DROGETEN ITTURRI
Publizitatea:
943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

TXALAPARTA TABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13 (Ermua)
ENKARGVAK 943 030 299

Ileapaindegia

MT
MT Ileapaindegia
C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Movil. 688819336
Silvia Gastón Izaguirre
facebook. https://www.facebook.com/ileapaindegiamtpeluqueria.mt



# XXVII. SAN MARTIN AZOKA



Argazkiak: Xabier Ciarsolo, Valentin Mugarza eta Dorleta Vidal.

## ESKERRIK ASKO EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI, AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN ERMUKO HERRIARI!

**Talogintza:** Maite Alzola/ Mari Paz Araiztegi/ Irune Aranberria/ Juanita Aspiazu/ Miren Astarloa/ Maritxu Etxebarria/ Mari Nieves Arregi/ Aner González/ Maitasun Idigoras/ Marijose Goiogana/ Maddi Goikoetxea/ Gloria Mallea/ Miren Bego Ugena/ Lutxi Alegria/ Maite Areitioaurtena/ Ignacio Ciarsolo/ Mari Karmen Urkidi/ Xabier Urkidi/ Idurre Zuazua/ Odile Guirado/ Andrea Diez/ Libe Elizondo/ Haizea Manso/ Nahiara Gallastegi/ Saioa Sanchez/ Iñigo Lejardi/ Olatz Mugarza/ Iratxe Arrizabalaga/ Arantza Cañamares/ Txume Zumeaga/ Marian Ruiz/ Sara de la Peña/ Omra Lamghari/ Alona Osoro. **Txikurixak:** Alberto Belar/ Julen Berriozabal/ Jabi Gorritxategi/ Antxon Ziarsolo/ Arantxi Perosanz/ José Antonio Martínez Carbajo/ Andoni Esmeralda/ Miguel Fernández/ Cándido Pascual/ David Elejalde/ Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritxategi/ Idoia Zamakola/ Txebis Gorritxategi/ Txume Zumeaga/ Marian Ruiz/ Inma Pagaldai/ Rosa Areitioaurtena/ Pamela Janice/ Xabi Iturriagagoitia/ Rosa Bañuelos/ Begoña Fernández/ Iñaki Delgado/ Natalia Arrieta/ Rikar Txabarri/ Julen Sololuze/ Elias Uriarte/ Begoña Infante/ Ander Idigoras/ Txotxi Iturriagagoitia/ Edu Izarra/ Jon Unanue/ Iratxe Odriozola/ Ane Odriozola/ Naroa Beitia/ Josu Gomez/ Nerea Rubio/ Nahikari Benito/ Laura Agudiña/ Alazne López/ Maitane Mugerza/ Libe Solozabal/ Ane Izagirre/ Ander Prol/ Aitzol Lejardi/ Iker Aranda/ Silvia Ganuza/ Maialen Inclán/ Joana Diaz/ Maitane Narbaiza/ Eukene Lamariano/ Sara Iglesias/ Ane Nogales/ Adei Fernández/ Oihane Uriarte/ Iñigo Gorritxategi. **Muntaia/desmuntaia:** Endika Fernández/ Ainara Arrizabalaga/ Juanjo Solozabal/ Ander Yarza/ Josu Garitagoitia/ Bea Narbaiza/ Alicia Lorenzo/ Fernando Aranberri/ Jose Carlos Ibaibarriaga/ Aitor Garcia/ Aitor Arriaga/ Idoia Goikoetxea/ Gus Blanco/ Juanjo Gorritxategi/ Txebis Gorritxategi/ Idoia Zamakola. **Ticketak eta kamisetak:** Idoia Narbaiza/ Yolanda Unamuno/ Olatz Yarza/ Edurne Madariaga/ Rakel Moya/ Jaione Madariaga/ Marga Pérez/ Juantxo Diez/ Pello Diez/ Amaia Arginzoniz/ Natalia Arrizabalaga/ Paule Gorritxategi/ Danel Gorritxategi/ Ainhoa Cid/ Leire Alvarez. **Saiheskia:** Elena Anton/ Oier Araiztegi/ Iñaki Bildosola/ Oier Egaña/ Egoitz Gerrikabeitia/ Alex Idigoras/ Aroia Lejardi/ Txomin Espilla/ Aintzane Plaza/ Jokin Txapartegi/ Irune Yarza/ Juan Ramón Areitioaurtena/ Mariano Casado/ Jesus Gómez/ Manolo González/ José Antonio Lejardi. **Buruko zapiak:** Mari Karmen Urkidi/ Maite Areitioaurtena. **Gari-jotea:** Beatriz Ugena/ Valentin Mugarza/ Enrike Gisasola/ Aizpea Izagirre/ Sosola baserria/ Eltzubi baserria/ Anaitasuna Ikastola/ Ermua BHI. **Aurreko/ondorengo egunetan:** Juan Antonio Izagirre/ Izagirre sendia/ Lucia Aldalur/ Mari Feli Manzisidor/ Felitxo Araiztegi/ Rober González/ Aitor Garcia/ Eskilarapeko/ Capelo. **Udalak/erakundeak:** Ermuko Udala/ Mallabiko Udala/ Kutxabank/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. **Astobusa:** Migel Mugerza, Jokin Mugerza/ Javier Osoro/ Eitzagoikoa baserria/ Olatz Massié/ Alex Massié. **Epaimahaia:** Jose Antonio Unanue Txanga/ Beatriz Gamiz/ Esther Astarloa/ Ainhoa Cid. **Errifak:** Pro arraindegia/ Anboto eta Urreta burdindegiak/ Beta eta Egolek elektrizitatedendak/ Solozabal estankoa/ Amaia Urkizu eta Miguel harategiak/ Irale Hortz-klinika/ MT ileapaindegia/ Kokko, Idoia eta Sehiga jantzidendak/ Gauzak kinkiladenda/ Mayte urdaitegia/ Sagardui poltsadenda/ Caperos, Dakota, Déjate Querer, Ertz, Giroa, Goien, Hanigan's, Herga, Infreñu, Karabixa, Karikato, London, Lurpe, Mendiola, Moloko, Sagarra, Secretos, Sirimiri, Sorgin, Titanic, Torrekua, Txalaparta, Txantxiku, Xagua, Yomy eta Zutabe tabernak/ Montse González. **Erakusleiho lehiaketa:** Ocon argazkidenda/ Senen bitxidenda/ Anboto eta Urreta burdindegiak/ Abeletxe Egoitza/ Arrieta elektrogailudenda/ Egolek elektrizitatedenda/ Gorritxategi eta Solozabal estankoak/ Descubre-te kafedenda/ Txutxerias, Arlekin eta Villa de Ermua gozodendak/ Miguel eta Danotz harategiak/ Dotek igeltseritza/ Marfil, Malla eta Look ileapaindegiak/ Angela, Cocoliso, Garot@s, Koopera Store, Kokko, Vintage, Sehiga, Idoia eta Quetzal jantzidendak / Caprichos, Guipur, Gauzak eta Izagirre kinkiladendak/ Mariasun loradenda/ Procolor margodenda/ Alboka Musika Eskola/ Eder, Arinka, Eva eta Zapatxiki oinetakodendak/ Arriaundi okindegia/ Artarrai oparidenda/ Itze optika/ Hannigan's eta London tabernak/ Mayte urdaitegia. **Bestelakoak:** Jon Larrañaga/ Alain Landarroitajauregi/ Xabier Ciarsolo/ Iñigo Pro/ Berria Egunkaria/ Anboto Burdindegia/ Herga taberna/ Kupela janaridenda/ Juani oihaldenda/ Anittu-goiko baserria/ Higinia Solozabal/ Alberto González/ Inmaculada Solozabal/ Eztakua-goiko baserria/ Angel Uriarte/ Aitzol Uriarte/ Capelo/ Ramón Espilla. **Taldeak:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Antxitxiketan Aisialdi Taldea/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea/ Merkatu Plaza/ Eskolabarri/ Txalaparta Elkartea. **Etxekoak:** Joseinas Larrañaga/ Nagore Espilla/ Rosa Jaussi/ Ihart Redondo/ Eider Gisasola/ Unai Rodríguez/ Asier Ibaibarriaga/ Manuel Moreno/ Nerea Berriozabal/ Gaizka Areitioaurtena/ Marines Txurruka/ Eli Txurruka/ Tere Uriarte/ Nerea Izarra/ Ane Sae z/ Estibalitz González/ Alazne Aiestaran/ Piedi Eizagirre/ Dorleta Vidal/ Igone Amesti/ Amaia Arriaga.




# san martin azoka · txerria · erromeria ·

san martin azoka · talogileak · postuak ·




Bitxi-denda Tailer propioa Erloju-denda
Senén
1978
Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte
San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Sagarra
Gastro-Pub
Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810




Bar
Geraleku
Taberna
Paco autobus geltokiaren ondoan gaude

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

hanigan's
Irish tavern
Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu
Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan, 10:00etatik.
Komentukua z/g · 943030527

garia jotzeko makina • umeentzako jolasak •

abereen erakusketa • txerri porra •






## SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Aurtengo epaimahaia honako hauek osatu dute: Bizkaiko Erlezainen Elkarteko Jose Benito Beobide, Idiazabal Jatorri-Izendapeneko teknikaria den Bittor Rodríguez, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorika, Jose Antonio Unanue “Txanga” herriko ordezkari bezala, Ermuko Udaleko ordezkari bezala Beatriz Gámez eta Asier Ibaibarriaga Euskal Birusaren izenean.

**FRUTA ETA ORTUARIAK**
1. saria: Maria Pilar Mallabia, Agarre baserria (Mallabia).
2. saria: Mila Amillategi, Barrenetxe baserria (Mallabia).

**GAZTA**
1. saria: Igor Txurruka, Barroeta Torre baserria (Markina).
2. saria: Patxi Baskaran, Santa Marina baserria (Markina).

**OGIA**
Maite Leanizbarrutia, Barrutia baserria (Elorrio).

**EZTIA**
Milalore eztia: Valentin Llona, Urikoa baserria (Zornotza).
Txilar eztia: Valentin Llona, Urikoa baserria (Zornotza).

**SAGARDOA**
Jose Antonio Bilbao (Axpe, Markina).

**TXAKOLINA**
Andoni Ojanguren (Lezama).

**AIPAMEN BEREZIA**
Jose Antonio Fernandez, Buenos Aires (Ermua).









## TXERRIAREN ERRIFAREN ZENBAKIAK



1. saria, 400 euro: 4751.
**Irabazlea: Sorgin taberna.**
2. saria: Landetxe batean asteburu pasa: 1353.
Oraindik ez da agertu, begiratu zure errifak!
Ordezkoa: 3141.

## ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

1. saria: Eva oinetakoak.



Epaimahaiak baloratu du landua, zehaztasun handiak eta ukitu dibertigarriak dituen erakusleihoa lortzeaz gain, azokaren erreferentzia zehatza eta espezifikoa diren elementuak islatu dituela: baserria, tiketak, errifa…



2. saria: Kokko jantzidenda.
Epaimahaiak baloratu du erakusleihoak generoaren ikuspuntutik ekarpen ona eta premiazkoa egiten jakin duela, jaia irizpide sexistetatik kanpoko norabidean doala adieraziz.

## MAITANE MUGERZAK IRABAZI DU ARGAZKI LEHIAKETA

#zutxerrileloa lelopean jasotako argazki guztien artean, Maitane Mugerza ermuarrarenak jaso ditu ‘atsegin dut’ gehien. Horri esker, bi lagunentzako afaria irabazi du Maitanek.











## JOSE ANTONIO UNANUE "TXANGA" IZAN DA HERRIKO ORDEZKARIA AZOKAKO EPAIMAHAIAN



Saiheskia erretzea izan da "Txanga"ren zeregina San Martin Azokako hainbat ediziotan. Azken urteotan behar horretaz erretiratuta egon arren, kale egin gabe eutsi dio Azoka bisitatzeari. Aurten jai erraldoi honen beste alderdi bat ikusteko aukera izan du, epaimahai kide izan baita.

***- Espero zenuen Euskal Biruseko deia jasotzea?***

Ez, izan ere, ez nekien herriko ordezkari batek epaimahaian parte hartzen zuenik. Sorpresa izan zen, baina poz handia eman zidan. Ohorea izan da.

***- Zertan eman zenuen Azoka eguneko goiza?***

Gosaldu eta gero, epaimahaiko beste kideekin elkartu nintzen eta postu guztiak ikusi genituen. Gero, plazan, nekazarien produktuak dastatu eta baloratu genituen. Beste epaileak oso majoak ziren eta gauza pilo bat ikasteko aukera izan nuen. Bukatutakoan, koadrilarekin bazkaldu nuen, eta goizean ikasitakoa azaldu nien, aditua banintz bezala!!

***- Nola baloratuko zenuke esperientzia?***

Oso esperientzia ona izan da, oso gustura ibili nintzen. Amaiera ere, sariak banatzera joan ginenean, hunkigarria izan zen. Batzuk emozionatu egin ziren saria jasotzerakoan!

## GAZTAÑERRE OSPATU ZEN AZAROAREN 14AN

San Martin Azokako ajea uxatzeko, astelehenean Gaztainerre burutu zen. Merkatu Plazan bildu ziren partehartzaileak eta afari autogestionatuaz disfrutatu zuten. Antolatzaileak (Kaltxango AEK Euskaltegia eta Berbalagun egitasmoa) arduratu ziren lagun horiek edariz eta gaztainez hornitzeaz. Afaria bukatutakoan, dantzatzeko eta musika entzuteko aukera izan zen.

## HIRU LAGUNEK JASO DUTE TXERRI-PORRAREN SARIA

272 postura egin ziren txerriaren pisua asmatzeko eta hiru lagunek asmatu zuten honen pisua: 259,50 kilo. Hauek dira irabazleen izenak: Jon Matey, Mikel Albillos eta Rober Gómez.

## 120 LAGUN BILDU ZIREN EUSKAL BIRUSEKO BABA-JANEAN

San Martin Azoka euripean amaitu bazen ere, giro goxoa sortu zen berriro ere horren osteko baba-janean. Euskal Birusak antolatuta, 120 lagun elkartu ziren Merkatu Plazan babak jan eta goizeko giro polita lagunartean luzatzeko asmoarekin.

## AEK-KO OTZARAK BADU JABEA




Urtero legez, Kaltxango AEK Euskaltegiak otzara zozketatu zuen San Martin Azoka egunean. 0074 zenbakidunak jaso zuen saria, hau da, Piedi Eizagirre ermuarrak.

## OGIA EGITEN IKASTEKO TAILERRA EGINGO DA SOSOLA BASERRIAN

San Martin Azokan garia jotzeko makina (Sosola baserria), garbitzekoa (Elgetzu baserria) eta harrizko errota (Sosola) ikusteko aukera egon zen artisauen gunean. Horrekin lotuta, Sosola baserriko lagunek, eurek ereindako gariarekin, ogia egiten ikasteko tailerra eskainiko dute abenduaren 17an, larunbata, Euskal Birusak antolatuta. Egitaraua? Goizeko 9:30ean elkartu, ogia egin, baserria bisitatuta, bazkari autogestionatua (Sosolak ogia, gazta eta sagardoa ipiniko ditu), ogia labean sartu eta 17:00etan lan jardunari amaiera eman, bakoitzak bere ogia besapean hartuta. Plaza mugatuak daude, eta parte hartu nahi dutenek 688632874 telefonoan eman beharko dute izena 5 euroren truke.









# Garittik urunera

**Siñistu be ezin bada ein, Ermuen erein eta Ongaraiko haize epel eta euzki beruakin aurrera eindako gari-buruek jo zien San Martin Azoka egunien. Eskola-umien kargu egon da lurpien emon dittuen 9 hilabetietan. Garixaren gaiñeko kulturian harire bi andrazko ekarri doguz gurera: Beatriz Ugena irakaslia, ekimen honen bultzatzaillia eta Juli Mendizabal berriztarra, Ermuko azken errotarixe. Ondoren beronen berbak.**

San Pelaixo inguruko lautadak, garitza bat ziraneko sasoian.



***- Noiztik errotari?***

Txomin gizona eta bixok Errotabarrire ezkondu giñen 1951n eta hamarren bat urte euki genduen. Baiña neuk ein biher izeten neban errotan, neu nintzen hango errotarixe, ze gizonak biherra eitten eban Zubi-Ondon.

***- Errotie mobitzeko indderra, nundik?***

Elektrizidaderik ez gendun gastatzen guk. Ure. Goikaldetik etorten zan uroi, Forjas Ermua-tik behera; errekan hartute euen gure etxera holako porlanezko bide bat, erreten bat, eta haren urekin bete-bete eitten zan andapadie, ur-deposittue. Handik behera jausten zanien uroi, dzast! joten eban behebehien euan burdinezko errobera bat eta bueltaka hasten zan berau. Aparte 2 harri biribil euazen, bata bestiaren gaiñien; ri-ra, ri-ra! ebalten zien eta arto edo gari aliek bixen bittartetik urun-urun eindde urtete eben. Harrixok aliek apurtzeko erreixa batzuk ekezen aprapos einde eta ibillian ibilliaz gastau eitten zienez, gure gizonak, taka-taka-taka! pikau eitten zittuen; segiduen ipintzen zittuen barriro martxan. Gizonak asko laguntzen ostan etxera etorten zanien, baiña halan ta guzti be beti pixuaz ibilli biher. Ha zan biherra! Nik nahixao dot taillarrien eittie, han eittie baiño. Sasoi ona neuk eta ibilli! Estaduen egonda be, tripa haundixaz eta pisu galantak ebalten nittuen, zaku batzuk 40 eta 50 kilo be hartzen eben-eta. Oin, baserrittarrak lagundu be eitten eben pisuok karriatzen, e!

***- Nungo bezeruek?***

Mallebikuek-eta. Astuaz etorten zien, kuadrilla galantak, ez bat eta bi. Baten bat karruaz be etorten zala dakat akorduen. Zaku haundi batzutan ekarten eben, garandute eta astuari ondo lotute. Baskulan pisau, laga hantxe eta Eibarrera juten zien, merkaure. Guk urundu eta bixamonerako prest eukitzen genduen. Orduen etxerik ez Errotabarritik harutz eta Eibartik bueltan etozenien, urrinera ikusten nittuzan astuok, Garzia-Monen etxie baiño beheragotik, autopistian sarrerie baiño harutzagotik.

***- Ze genero ekarten zotsuen?***

Artue eta garixe. Alde batien garixe apurten gendun eta bestien artue. Garixe ordureko asko bajaute euen, iñoz-iñoz agertzen zan, baiña artue beti. Haraz gero morokille eta taluek eitten zien eta txarrixai be emoten jakon, pare bat eskutakada edo, uraz ondute. Baserri batzuk asko gastatzen eben.

***- Zuen irabazixek zelakuek izeten zien?***

10 kilotik bat hartzen genduen eta geratzen jakuzen zakukadak urunek. Horrek saldu eitten genduzan; egixe esateko, errez saltzen zan.

***- Entregurik bai, udaletxien edo dana dalakuen?***

Ez, ordurako amaittuta euazen gerra osteko horrek gauzok. Guk pagau gure kontribuziñue eta kitto!

***- Inguruen ze beste errotaren entzutie dakazu?***

Malengo eta Matxin gorago, Sallabenten Bekoerrota, Eitzan Kóndia, Olarrien Askasibar eta Eibarrera bidien, Otolan, be beste pare bat. Danak amaittute oin eta ogixe, panaderixan!

Estibalitz González

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
✆ 943 17 47 44

san pelayo
clínica dental hortz klinika
San Pelayo 5, 1°
Ermua (Bizkaia)
Olatz Garcia Arregui
943 17 04 04

OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA
Marfil
Ile-apaindegi bat baino gehiago!!
Egokitutako burua garbitzeko konketa
943 17 28 09 · Goienkale 12

SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

LURPE LURPE
ERMUA ERMUA

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

# Gari-jotia Ermuko kalietan

**Ikusmira haundixe egon zan Valdespina kalien, bertaratutakuek Ermuen bertan ernetako gari-buruek antxiñako estilora jo, garbittu eta uruntzen ikusteko aukerie izan zebelako. Eskoletatik etorri zan proposamena; euren ortuen garixe ereittiana atzetik dator. Beatriz Ugena dogu barriemoille.**


Garixe garbitzen Valdespinan. *Argazkia: Valentin Mugerza.*

***- Zelan ipini zan martxan egitasmue?***

Gizonan baserrixen, Mallabiko Elgetzun, garixe ipiñi bihar gendule bururatu jakun eta, baserrittarren almazen batetik eskutakadatxo bat jirau ostien, 4 urtez erein genduen. Gero pentsau genduen zergaittik ez erein eskolan eta eskinatxo baten zabaldu genduen. Urten zeban, ebagi genduen eta barriro ereitteko gogue sartu jakun! Harrezkeroztik Anaitasuna Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasliek, Ermua Institutuko Bigarren Hezkuntzakuen laguntza estimagarrixakin, 3 urte daroieguz garixe ereitten.

***- Eskolaumiei ikasteko balixo izango zotsien?***

Bai, ikusi dabe garixe zer dan eta asmue horixe zan, landarie zelakue dan ezagutzie. Ogixan urune garittik datorrela gelan ikasten dabe eta beste paraje batzutan hartzen dala be bai, baina berton izateran ikutzeko eta hazten ikusteko aukerie izan dabe. Gaur eguneko umiek ohittute dagoz dana momentuen eskatzen eta izaten, baina hemen gauzak epe luzerako dira eta itxaitten jakin bihar da. “Erein dot hau eta honenbeste hillebete pasau bihar die fruitue jasotzeko”. Hor pazientzia eta ilusiñue lantzen dozuz, eurixe dala eta ezin dozula batu, bare bat sartu eta erneta zeuena rausta! jan ein dotsule, ba bueno ez da pasatzen ezer… Niri gustatzen jata honek aportatzen dotsiena umiei: prozesu bat dakala, oin hasi eta datorren urtien amaitzen dana, itxain ein bihar jakola, eguraldixek lagundu ezkero batu eitten dozula eta bestelan ez, zure esku ez dauela, zaindu ein bihar dala ingurue…

***- Ze zainketa eskatu izan dotsue?***

Apartekorik ezebez! Azkenengo hilgoran ereinda dago, egutegi biodinamikuan ze egun dan apraposena begiratu ostien eta oin lurpien 9 hillebete ein biher dittu, uztaillera arte, orduen dalako batzeko sasoie.

***- Berue biher dau garixek. Ein dau heltzeko besteko arue?***

Bai, bai. Gainera deukegun ortue oso ona da, eguzki-begixe eta altue. Iparra sartzen danien edarto astindu arren, babestute dauanez, generue ondo hartzen da.

***- Ebagi zelan, lehengo erara, iditaixakin?***

Bai, ze ez dakigu beste modurik. Eskuz eta iditaixakin. Aurten ikasi dot azauek eitten, ziri bat erabilliz estu-estu lotutako gari-txorta, gari multzo bat. Leheneguek ez zostien totaleko itxuroso urten, baiña azkenerako bueno…! Ondo estutu bihar izaten da, gero makiñiek tiretu eitten dotsalako gogor. Amak esanda dakit, lehen azauok landan batzen zirela, alkarren gaiñian ipiñi eta gora eta gora altxauaz, meta bat eitten zala, bittartietatik haixia sartu eta ganoraz sikatzeko.

***- San Martin Azokan 3 makina egon ziran martxan…***

Bai, bata garixe jotzekue, beste bat urune eittekue, bixak Eibarko Sosola baserrittik ekarrittakuek eta garixe garbitzeko beste bat, Mallabiko Eltzubitik jirautakue. Hau urte mordo bat ganbaran geldik egon ostien, probau dabilen eta martxan zu! Jende asko hurreratu zan eta politte izan zan! Pozik!

Estibalitz González

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua


PUB YOMY
Zubiaurre kalearen bihotzean

egolek
electrizitatea iluminazioa
M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

# Jardunaldi Mikologikoetan

Beste urte batez Ermuan antolatzen den jardunaldi mikologikoetan parte hartu dugu. Perretxiko eta basoko maketak, pankartak, kartelak eta liburuxkak egin dituzte eskolako natura tailerrean. Larunbatean, plazako erakusketan, perretxikoekin batera gure ikasleen lanak ikus zitezkeen, eta bisitariei asko gustatu omen zitzaizkien.



# San Martin Azoka

Eskolako 6.mailako ikasle eta gurasoek Ermuan ospatu zen San Martin Azokan parte hartu zuten. Lan asko egin ondoren, dotore apaindutako salmenta postu ikusgarria prestatu zuten. Porruak, zerbak, kalabaza, tomatea, sagardoa, landareak… denetarik izan zuten, baina arrakasta gehien izan zuen produktua etxean egindako gozoak izan ziren. Bai goxoak!

Goiza giro bikainean igaro zuten, dendari lanak egin, jendearekin solasaldian ibili eta ikasketa bidaiarako diru apur bat atera. Ondo aprobetxatutako eguna.



# Gaztainak ñam-ñam

Gaztañerre eguna eskolan ospatu genuen. Goizean goiz hasi eta AMPAko gurasoek antolaturik, parrillak hartu, ikatzez bete eta gaztaina mordoa erretzeari ekin zioten.

Ikasleak, jolas orduan patiora irten orduko, gaztainak puntu-puntuan zeuden eta haur bakoitzari poltsakaratxo bat eman zieten. Horiek, jakiña, gosearen gosez bat-batean bukatu zituzten gaztaina guztiak.



Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

optika itze
✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA
Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Pub Dakota
Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

## ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut
Zubiaurre 24an.
Bi logela ditu.
✆ 648 64 37 15

Pisua alokatzen dut
Iparragirre kalean.
Bi logela ditu.
✆ 669 20 91 83



Abenduaren 4an
Zorionak Ane zure 10.urtebetetzean familia osoaren partez. Ondo pasatu printzesa! Musu handi bat. Muuuak!



Azaroaren 8an
Zorionak Danel!! Urtebete gehiago!! Musu handi bat familiaren partez.



Azaroaren 9an
Zorionak Markel!!! Muxu pila etxekoen partez zure zazpigarren urtebetetzean. Gozatu eguna!



Abenduaren 11
Zorionak Urko zure 9. urtebetetzean. Oso ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat familia guztiaren partez.



Abenduaren 13an
Zorionak Kirmen, 6 urte!!!! Muxu handi eta potolo bat familiaren partez.



Abenduaren 11n
Zorionak Irati zure lehenengo urtebetetzean Eder, Izeko eta amama-aititeren partez. Muxu erraldoi bat.



Abenduaren 4an
Zorionak Aitzol zure 8. urtebetetzean. Musu handi bat etxekoen partez.



Azaroaren 22an
Zorionak Markel! Oso ondo pasa zure egunean, gure mutiltxoak 5 urte egin ditu, jarraitu beti bezain alai. Muxu handi bat etxekoen partez!





Xabat (urriaren 10ean), amama Miren (abenduaren 2an) eta Ibai (abenduaren 8an).
Zorionak Ibai eta amama eta ongi etorri Xabat! Patxo potolo bat hiruruntzat etxekoen partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:

**drogeten@gmail.com**

Azken eguna:
**Abenduaren 14an.**












## MALLABIA
# 1966



Argazki hau 1966 ingurukoa da. Bertan agertzen dira 1944ko kintoak, soldaduskara joan baino lehen. Kinto batzuk ez dira agertzen (Migel Angel Astarloa, besteak beste), soldaduskara joanda zeudelako.

Argazkian daude: Franscisco Aldape, Juan Santiago Landa, Martin Ibaibarriaga, Jose Luis Areitioaurtena, Jose Arriaga, Juan Luis Txurruka, Cayetano Abendibar, Jose Luis Agirrebeitia, Jose Aranburu eta Lucio Garitagotia.

## ERMUA
# 1964



Urte horretako urriaren 3an ezkondu zen Ino Izagirre Victoriano Olabe markinarrarekin. Elizakoak egin ostean, Balerionian izan zuten ezkontza-bazkaria. Jarrita, erretratuaren erdian, andregaia, kaleko jantzita eta bere 9 anai-arrebez inguratuta. Tente, ezkerretik hasita: Cecilia, Agustin, Magdalena, Antonia eta Paco. Jarrita daude Matilde, Jesusa, Ino bera, Felisa eta Tere. Komentukua familia.

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO
Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

**Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna. 1949an ezarri zuen egun hori Eusko Ikaskuntza erakundeak, eta 1995ean Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak bat egin zuten. Harrezkero Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu zen eta honek ospakizunak zabaldu.**

**Badakizu noiz den Euskararen Eguna?**
**Zerbait berezia egingo duzu ospatzeko?**
**Uste duzu horrelako egunak ospatzeak ondorio positiboak dituela?**



Ez dakit noiz den, baina badakit existitzen dela, bilobak euskaraz ikasten baitu. Uste dut egun hau ospatzea garrantzitsua dela, hizkuntzak eta kulturak errebindikatzeko eta ez galtzeko. 20 urte gutxiago banitu euskara ikasiko nuke, euskal kultura hobeto ezagutzeko. Kultura guztietako sustraiak ezagutzeak asko erakartzen nau.

**Ángela Nieto, 60 urte**



Badakit euskarak egun bat duela, baina ez daukat gogoan noiz den. Beharrezkoa da hizkuntzak aldarrikatzea. Gaztelaua banintz agian ez nioke horrenbesteko garrantzirik emango, baina galegoa naiz, eta han ere kultura eta hizkuntza propioa dugu. Horregatik garrantzia ematen diot besteen kulturak eta hizkuntzek ere aurrera egiteari.

**Juan Antonio Nieto, 66 urte**



Badakit euskarak bere eguna duela, baina ez dakit noiz den. Egun horretan bidaian egongo naiz, hala ere, ospatu beharrekoa dela iruditzen zait, euskarak laguntza premia handia duelako. Nik ere lagunduko nuke, eta oso ekimen aproposa iruditzen zait Berbalagun, esaterako, baina ordutegiak ez datozkit ondo, goizean beharko luke.

**Andoni Areitioaurtena, 71 urte**



Ez dakit, baina uste dut laster dela. Kalean antolatzen diren ekitaldietan parte hartuko dut umearekin. Azkenean, iruditzen zait egun hauek ondorioak izaten dituztela. Ermuan Bagara ostean, adibidez, euskara gehiago entzuten dela sumatu dut, nire inguruan behintzat. Dena den, Ermuan lan handia dago oraindik egiteke.

**Nagore Izagirre, 35 urte**

## Tasio eta Sabino



- *Marmotaren eguna* pelikula oroitzen duzu?
- Bai, horrela izan beharko luke. Egunero, Euskararen Eguna.

## ZINEA

**3tik 5era**

**10etik 12ra**

**17tik 19ra**

*Zehaztu gabeko filmeak. Ermua Antzokian. Hainbat ordutegi.*

## ZINE-KLUBA

**Hilak 1**

**Hilak 8**

**Hilak 15**

**Hilak 22**

**Hilak 29**

*Zehaztu gabeko filmeak. Antzokian. 20:30ean.*

## UMEENTZAKO ZINEA

**Hilak 4**

**Hilak 11**

**Hilak 18**

*Zehaztu gabeko filmeak. Antzokian. 17:00etan.*

## UMEENTZAKO EKITALDIAK

**Hilaren 5ean eta 19an**

*Ipuin kontaketak. Hilaren 5ean ingelesez eta 19an euskaraz. 17:30ean. Lobiano kultur Gunean.*

## MUSIKA

**Hilak 16**

*Kontzertua: Antonio José. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 15€*

**Hilak 17**

*Blues kontzertua: The Allnighters. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 8€*

**Hilak 21**

*Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:30ean. Antzokian. Sarrera dohainik.*

**Hilak 30**

*Kontzertua: Martirio. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 12€*

## ANTZERKIA

**Hilak 2**

*"Jokoz kanpo", Borobil Teatroaren eskutik. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 10€*

**Hilak 9**

*"Muñeca de porcelana", José Sacristán eta Javier Godinorekin. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 15€*

**Hilak 23**

*"Skizopoziks", Marcos Gimenorekin. 22:15ean. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera: 5€*

## GABONETAKO HAUR KANPAINA

**Abenduaren 24an, larunbata**

*11:00etan. Olentzero txiki, plazatik irtenda.*

**Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra**

*11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Gabonetako Haur Parkea: Puzgarriak, ohe elastikoak, ludoteka, jolasak, bideokonsolak eta haurrentzako tailerrak. Sarrera: 2€. Udal Kiroldegian. (Abenduaren 31an arratsaldean eta urtarrilaren 1ean egun osoa parkea itxita egongo da)*

**Abenduaren 26an, astelehena**

*17:00etan: Pailazoen ikuskizuna: Txirri, Mirri eta Txiribitonen eskutik. Sarrera: 4€. Antzokian.*

**Abenduaren 29an, osteguna**

*17:00etan: Haurrentzako anzterkia: "Txanogorritxo". Glu Glu Produkzioen eskutik. Sarrera: 4€ Antzokian.*

**Abenduaren 31n, larunbata**

*18:00etan. Olentzeroaren harrera. Orbe Kardenalaren plazatik.*

**Urtarrilaren 5ean, osteguna**

*18:00etan: Errege Magoen kabalgata.*

## ERAKUSKETA

**Hilaren 11ra arte**

*Argazkiak: "2016ko uda" lehiaketara aurkeztutako lanak. Lobianon. 18:00etatik 20:00etara.*

**Hilaren 19tik 23ra**

*Gabon mahai apaindurak. Merkatu Plazan.*

## BESTELAKOAK

**Hilak 3**

*Euskararen Eguna: hainbat ekitaldi. 12:00etatik aurrera Orbe kardenalaren plazan eta inguruetan.*

**Hilaren 8tik 11ra**

*Gaztela-Mantxako kultur jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Gaztela-Mantxako Kultur Zentroan.*

Patxi López

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

PRO
arraindegia

ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA
MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# abenduak 3

# ermuan euskaraz bagara

## EUSKARAREN nazioarteko eguna

### EGITARAUA

**12:00 - 12:30** Eskolen ekitaldia

**12:45 - 13:00** Kantuan bagara

**13:00** TRIKIPOTEOA
Plazatik hasita, Valdespina, Goienkale, Zubiaurre eta Merkatuan amaitu

**14:00** Bazkari autogestionatua merkatu plazan

**16:30** Umeen jolasak plazan

**17:30** Txokolate banaketa eta kriseiluen tiketen salmenta plazan
Aurretik salgai Kaltxango eta Euskal Birusean!! 200 jarriko dira salgai 2€tan

**18:30** Mezu nagusiaren irakurketa plazan

**18:45** Trikitilariekin kalejiran San Pelaio parkera

**19:00** Kriseiluen banaketa eta nola aireratu azalpena

**19:15** 200 kriseiluen aireratzea
Euria balitz ezingo dira aireratu

BUKATZEKO KANTA

*Laguntzailea:*

**OHARRA**: Euria balitz, jolasak, txokolate banaketa eta mezuaren irakurketa merkatu plazara eramango dira.

*Antolatzailea:*

ERMUKO EUSKALTZALEEN SAREA




**9 urte zugandik hurbil.**
**Eskerrik asko zure konfiantzagatik!**




**Baldespinako markesa 16, behea**
**Denda: 692 67 42 98 - Manu 667 61 87 11**